

ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

2023-2024 denboraldia
(2023ko urriaren 2tik 2024ko irailaren 29ra)

10. astea (2024ko martxoaren 4tik 10era)

Gripe-birusaren zirkulazioak behera egiten jarraitzen du. COVID-19aren intzidentzia ere jaitsi da, eta honek, ABSk eragindako infekzioekin batera, balio baxuetan egonkortzeko joera du.


- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 394,4 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (378,3/100.000 aurreko astean).
- Lehen Mailako Arretan, gripe-sindromearen tasak beherantz jarraitzen du eta bronkiolitisarena nahiko egonkor mantentzen ari da azken asteetan.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 61 lagin jagoleen % 52,5 baieztatu da, 2 gripe-birus (positibotasuna % 3,3) atzeman direlarik. Ez da SARS-CoV-2 ala ABSik detektatu, baina bai 12 metapneumobirus eta 9 errinobirus.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 12,9 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (12,7/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 27 SARS-CoV-2, 37 gripe-birus eta 18 ABS erregistratu dira.

AIA Lehen Mailako Arretan

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 394,4 kasukoa izan da (378,3/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 313,6/100.000 izan da Araban, 427,8/100.000 Bizkaian eta 378,6/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arreta-sarea. 2023-2024, EAE



Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena 0-4 urtekoen adin-taldean eman da 1969,1 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5-14 urtekoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 689,8 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek gora egin dute adin-talde guztietan, 45-64 urteko adin-taldean izan ezik.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek gora egin dute ESI batzuetan (batez ere Bizkaikoetan) aurreko astearekin alderatuta eta behera besteetan.


AIAREN INTZIDENTZIA-TASAK ETA TASEN ARRAZOA ESIAREN ETA ASTE EPIDEMIOLOGIKOAREN ARABERA. LEHEN MAILAKO ARRETAKO SAREA. 2023-2024, EAE

ESI	Tasa 10. astea	Tasa 9. astea	Tasen arrazoa (% 95 KT)
Arabako ESI	335,5	350,9	0,96 (0,87-1,04)
Arabar Errioxako ESI	698,7	613,5	1,14 (0,83-1,56)
Barakaldo-Sestaoko ESI	358,1	290,3	1,23 (1,07-1,42)
Barrualde-Galdakaoko ESI	464,4	399,7	1,16 (1,08-1,25)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	442,0	416,7	1,06 (0,99-1,14)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	448,1	380,3	1,18 (1,06-1,31)
Uribeko ESI	347,2	331,6	1,05 (0,95-1,16)
Bidasoako ESI	328,4	356,9	0,92 (0,78-1,09)
Debararrenako ESI	385,0	438,0	0,88 (0,75-1,03)
Debagoienuko ESI	303,3	270,5	1,12 (0,91-1,38)
Donostialdeako ESI	339,8	356,1	0,95 (0,88-1,03)
Goierrri-Urola Garaiako ESI	489,1	514,2	0,95 (0,84-1,08)
Tolosaldeako ESI	466,7	485,4	0,96 (1,13-0,82)

Gripe-sindromearen tasak behera egin du berriro aste honetan eta 4,2 kasu 100.000 biztanleko balioan kokatu da (6,0/100.000 aurreko astean).

Bronkiolitisaren tasa (2 urtetik beherakoetan) nahiko egonkor mantendu da azken asteetan eta 249,6 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (270,4/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAREN sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIARako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 61 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 52,5 baieztatu dira. 2 gripe-birus (AH1pdm09 bat eta AH3 bat) atzeman dira, SARS-CoV-2 ala ABSik, aldiz, ez. 12 metapneumobirus eta 9 errinobirus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoen arabera. 2023-2024, EAE



Hiru arnas-birus nagusien, SARS-CoV-2, gripe-birusa eta ABS, positibotasunak nahiko egonkor daude % 10etik beherako balioetan (% 0,0, % 3,3 eta % 0,0, hurrenez hurren). Metapneumobirusaren positibotasuna % 19,7koa izan da (% 31,4 aurreko astean) eta errinobirusarena % 14,8koa (% 23,5 aurreko astean).


Positibotasunaren ehunekoak mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2023-2024, EAE

	10. astea		9. astea		2023-2024 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	2	3,3	3	5,9	240	18,7
SARS-CoV-2	0	0,0	3	5,9	71	5,5
ABS	0	0,0	1	2,0	90	7,0
Metaneumobirus	12	19,7	16	31,4	73	5,7
Parainfluenza	4	6,6	1	2,0	25	1,9
Adenobirus	1	1,6	4	7,8	31	2,4
Errinobirus	9	14,8	12	23,5	254	19,8
Urtaroko CoV	6	9,8	5	9,8	75	5,8

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean


Zaintza sindromikoa

AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorritzen direnak. AIAL tasa 12,9 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (12,7/100.000 aurreko astean), 11,5/100.000 emakumeetan eta 14,3/100.000 gizonetan.



Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 64 urtetik gorako adin-taldean eman da 36,1 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5 urtetik beherako adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 29,6 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek behera egin dute 5-14 urteko eta 64 urtetik gorako adin-taldeetan, eta gora besteetan.

AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. Gripe-birusaren positibotasuna % 0,5era jaitsi da aste honetan (% 4,9 aurreko astean) eta SARS-CoV-2arena, zeina azken asteetan % 10aren azpitik kokatu den modu egonkorrean, % 1,0koa izan da (% 5,0 aurreko astean). ABSren positibotasuna ere egonkor mantentzen da eta % 4,1ean kokatu da (% 3,8 aurreko astean). Aste honetan erregistraturiko positibotasun altuenak metapneumobirusarena (% 19,6) eta errinobirusarena (% 17,9) izan dira.

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE

	10. astea		9. astea		2023-2024 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	205	1,0	201	5,0	6588	9,6
Influenza	195	0,5	184	4,9	6209	19,3
ABS	170	4,1	159	3,8	5217	14,9

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, CAE




Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 27 SARS-CoV-2, 37 gripe-birus eta 18 ABS detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 37 gripe-birusetatik, 20 azpitipatu gabeko A motakoak izan dira, 14 A(H3), 2 A(H1)pdm09 eta bat B motakoa. 2023/40 astetik 6032 detekzio erregistratu dira, 6015 (% 99,7) A motakoak eta 17 (% 0,3) B motakoak. Azpitipatutako A motako 1838 birusetatik, 427 (% 23,2) A(H3) eta 1411 (% 76,8) A(H1)pdm09 izan dira.

Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko Mikrobiologia Zerbitzuen datuen arabera, otsailean, PCR bidez aztertutako SARS-CoV-2ren lagin positiboen % 25,7 sekuentziatu dira orain arte. Guztiak Omikron aldaerakoak izan dira, leinu ohikoenak JN.1 (% 92,1), XDD (% 3,4) eta BA.2(% 2,2) eta izan direlarik.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2023-2024, EAE




COVID-19aren egoera

60 urte edo gehiagoko populazioan, 10. astean, COVID-19aren 7 eguneko intzidentzia-tasa 3,3 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (3,8/100.000 aurreko astean); 3,8 gizonetan eta 3,0 emakumeetan.

Osakidetzaren ospitale-egoeraren adierazleetatik lortutako datuen arabera, aste honetan 15 paziente ospitaleratu dira EAEn COVID-19agatik¹ (16 ospitaleratu aurreko astean), 11 gizon eta 4 emakume. Ospitaleratutako pertsonen % 86,7 60 urtetik gorakoa zen.

COVID-19agatik gertaturiko ospitaleratzeen kopurua eta tasa, aste epidemiologikoen eta adinaren arabera. 2023-2024, EAE



¹ Txostenaren argitaratze datako behin behineko datuak

Urteko 10. astean, COVID-19 2 kasu berri erregistratu dira EAEko adinekoen egoitzetako erabiltzaileen artean (3 aurreko astean). Kasuak dituzten zentro soziosanitario kopurua ere 2 izan da, aurreko astean baino bat gutxiago.

Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2024ko martxoaren 13an

**Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza**